

Bi lagunendako bi hegaldi

KANPAINAREN OINARRIAK

Agiri honek «**EGIZU HEGAN SEGURTASUNEZ**» kanpaina jaso eta zehazten du.

Kanpainaren helburua da auto- eta etxe-aseguru berrien polizak kontratatzea. Poliza horiek, konpainiaren kontratazio-arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete behar dituzte.

1.- Kanpainaren datak

Sustapena 2020ko otsailaren 10ean hasi eta 2020ko apirilaren 17an amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko zergatirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2020ko otsailaren 10etik apirilaren 17ra bitartean kontratatu behar dira polizak (efektu-datak, berriz, 2020ko abenduaren 31ra arteko muga izango du).

2.- Oparia

Bi lagunendako bi hegaldi (joan-etorrikoak) egiteko baliozko kodea lortuko dute bezeroek (tasak ez daude barne), kanpainaren indarraldian zehar berorren baldintzak betetzen dituzten auto- eta/edo etxe-aseguru bat kontratatuz gero.

3.- Beste baldintza batzuk:

- Kanpainaren datak: Eskaintza honek auto- eta etxe-aseguruen kontratazio berrietarako balio du, betiere kanpainaren baldintzak betetzen badituzte eta 2020ko otsailaren 10etik 2020ko apirilaren 17ra bitartean kontratatzen badira.
- Auto- eta etxe-aseguruen efektu-data 2020ko abenduaren 31ra artekoa izango da.
- Kontratutako poliza bakoitza urtero edo sei hilean behin ordaindu behar da, eta ordainketak LABORAL Kutxan helbideratuta egon behar du.
- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuetan erabili.
- Saria eskuratzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- Gehienez 1.500 hegaldi-kode emango dira.
- Poliza kontratatu ondoren emango zaio bezeroari hegaldi-kodea.
- Hartzaile bakoitzak 2 hegaldi-kode eskuratu ditu gehienez.
- LABORAL Kutxaren kanal guztien bidez kontratatzen diren aseguruetarako balio du kanpainak.
- Saria bateraezina da beste kanpaina eta kolektibo batzuekin, TOP/KIDE kolektiboekin eta leasing gurpilak kanpainarekin izan ezik.

4.- AUTO-ASEGURUaren baldintzak

Edozein modalitatetako lehen kategoriako kontratazio berrietarako (Frankiziarik gabeko Arrisku Orotakoa eta Hirugarrenentzako Oinarrikoa izan ezik), betiere 250€ €-tik gorako prima badute. 27 urte baino gehiago eta 4 urteko gidabaimena izanik 3 urtean edo gehiagotan ezbeharririk izan ez duten gidarientzat –SINCON egiaztatuta– eta diruzko obligazioak betetzeari edo ez-betetzeari buruzko fitxategian ez dauden bezeroentzat. Konpainiaren kontratazio-arauei lotua.

5.- ETXE-ASEGURUaren baldintzak

Hipoteka-mailegu berriei lotuta EZ dauden etxe-polizen baldintzak

Etxe-aseguruen kontratazio berrietarako, betiere edukitzailearen kapital aseguratua gomendatutakoa edo handiagoa bada, edukiaren gutxieneko kapitala 20.000 €-koa bada (salbu eta gomendatutakoa zenbateko hori baino txikiagoa bada) eta **150 €-tik gorako prima badu.**

Hipoteka-mailegu berriei lotuta dauden etxe-polizen baldintzak

Plus modalitatea eskatuko da, **150 €-ko gutxieneko primarekin**, betiere edukitzailearen kapital aseguratua gomendatutakoa edo handiagoa bada eta edukiaren gutxieneko kapitala 20.000 €-koa bada, salbu eta gomendatutakoa zenbateko hori baino txikiagoa bada. Gainera, kanpaina aplikatzeko, serieko berme hauek kontratatu behar dira:

- Edukirako borondatezko hedadura-poliza.
- Kontsumitzailearen defentsa juridikoa.
- Eskuterebe Zerbitzua.

Bi lagunendako bi hegaldi

KANPAINAREN OINARRIAK

6.- Sustatzailea

Aseguru hauen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetakoa operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Arriskuaren aseguratzailea: Seguros Lagun Aro SA. Kontsultatu aseguratzaileak hemen: www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aseguruak.

7.- Aplikazio-eremua

Kanal hauek erabiliz kontratatutako aseguruetan aplikatuko da kanpaina: www.laboralkutxa.eus webgunea, Online Banka, aseguruetan espezializatutako telefono bidezko arreta-zentroa (901 100 200) eta Seguros Lagun Aroren Banka-aseguruetakoa Operadore Lotetsia den Caja Laboral Popularren banku-banaketarako sarea –Bitartekarien Administrazio Erregistro Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin–.

8.- Nola trukatu hegaldi-kodeak

Kode bat, bi pertsonarentzako joan-etorriko bi hegaldi egiteko. *Tasak ez daude barne (pertsonako eta ibilbideko 20 € nazioko hegaldira eta 25 € nazioartekoan). Kode horrekin, Erroma, Paris, Berlin, Londres, Brusela, Oporto, Marrakex... dituzu aukeran, eta baita beste hainbat helmuga ere. Hegaldiak Low Cost konpainiekin egingo dira.

- Joan-etorriko hegaldi zuzena
- 2 lagunentzat balio du
- Europako eta Marokoko helmugetara bidaiatzeko
- 2.500 ibilbide baino gehiago
- Eskuko ekipajea (airelinearen arabera)

Nola funtzionatzen du?

Zure etxe- edo auto-asegurua kontratatuta, kode bat oparituko dizugu, bi pertsonarentzako joan-etorriko bi hegaldi egiteko. Eta, etxe- edo auto-aseguru baten aurrekontua eskatzen baduzu, 100 hegaldira zozketan sartuko zara.

- Zure etxe- edo auto-asegurua kontratatuta, kode bat oparituko dizugu, bi pertsonarentzako joan-etorriko bi hegaldi egiteko.
- Sariarekin trukatzeko kode bat jasoko duzu, posta elektronikoz edo SMS bidez.
- Erreserba egindakoan, bidaiatzeko gozatzea izango da zure egiteko bakarra.

Espainiako, Europako eta Marokoko helmugetara bidaiatu ahalko duzu. Kontsultatu [nora joango gara](#)

Noiz egin dezaket erreserba eta hegaldira?

Aurrena, 4 epealdietako zeinetan egin nahi duzun hegan erabaki behar duzu. Ondoren, egin erreserba eta gozatu bidaiatzeko. Erraza, ezta? Gogoan izan: sustapena denez, gerta liteke kodea trukatzeko helmugetara eta data guztiak ez egotea aukeragarri, ez baita hegaldira-txartelaren ohiko erosketarekin bat. Hegaldiak Low Cost konpainiekin egingo dira.

Noiz kontsultatu behar duzu erreserba?

1. epealdia

2020ko martxoaren 1etik 10era

2. epealdia

2020ko maiatzaren 1etik 10era

3. epealdia

2020ko irailaren 1etik 10era

4. epealdia

2021eko urtarrilaren 1etik 10era

Hegan egiteko:

- 2020ko martxoaren 25etik 2020ko maiatzaren 31ra
- 2020ko maiatzaren 25etik 2020ko irailaren 30era
- 2020ko irailaren 25etik 2020ko abenduaren 31ra
- 2021eko urtarrilaren 25etik 2021eko apirilaren 30era

Nola egin behar dut erreserba?

- Sartu laboralkutxa.incentivoregalo.com webgunean eta idatzi zure kodea.
- Kontsultatu helmugeta eta data eta erreserbatu hegaldira online.
- Zure hegaldira erreserba-zenbakia posta elektronikoz jasoko duzu. Bidaia on!



LABORAL
kutxa

AUTO- EDO ETXE-ASEGURU BATEN AURREKONTUA EGITEAGATIKO ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea eta zozketan parte hartzeko eguna:

Caja Laboral Popular S. COOP. sozietateak –aurrerantzean LABORAL Kutxa–, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) –Jose Maria Arizmendiarrjeta, zk.g., 20500– duenak, 100 hegaldi zozkatuko ditu (2 hegaldiko 50 sari), sustapen baten barruan.

LABORAL Kutxaren 18 urtetik gorako bezeroek hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2020ko otsailaren 10etik 2020ko apirilaren 17ra bitartean auto- eta/edo etxe-aseguru baten aurrekontua egiten badute LABORAL Kutxaren merkaturatze-kanaletako edozeinen bidez ,

2.- Doakoa:

Zozketa hau doakoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa:

LABORAL Kutxako bezeroek hartuko dute parte zozketan, baldin eta LABORAL Kutxaren kanaletako edozeinen bidez auto- edo etxe-aseguru baten aurrekontua egiten eta GORDETZEN badute. Muga: auto-aseguruaren 2 aurrekontu eta etxe-aseguruaren 2 aurrekontu bezeroko.

LABORAL Kutxaren webgunean egiten diren aurrekontuak GORDETZEKO, honako hau egin behar da: BIDALI AURREKONTUA botoia sakatu eta inprimakia bete eskatutako datuekin.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak. Irabazleak egunean eta positiboan izan behar ditu entitatearekin kontratatutako produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

4.- Zozketa:

Zozketa 2020ko maiatzaren 15ean egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean. Zozketan 50 irabazleen izenak aterako dira (2 hegaldi irabazle bakoitzeko), eta ordeko 5 izen, badaezpada, irabazleek baldintzak betetzen ez badituzte ere. 10 egun balioduneko epean saridunarekin harremanetan jarterik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordekoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoarentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz. Saria inpersonala eta besterengarria da.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua:

Bi lagunentzako bi hegaldi (joan-etorrikoak). Guztira 100 hegaldi. Tasak EZ daude barne. Saria ezin da aldatu beste batzuekin edo haren diruzko balioarekin.

6.- Sariaren zerga-sistema:

Saria indarreko legerian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergen alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

7.- Irudi-eskubideak lagatzea:

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Bestela, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordekoari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea:

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Era berean, zozketatik kanpo utzi ahal izango ditu zozketaren emaitzak fede gaiztoz aldarazten saiatzen diren pertsonak. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.